

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



KUTXATEKA. MARIN FUNTSA. PASCUAL MARIN

SAFARIA OTE... ONDARRETAN?

1923. urtearen bukaeran frantziar jatorriko Palise zirkua Amarako parkean jarri zuten, Donostian. Emanki-zun guztietan betetzen zen, eta, bere animalien artean, bost elefante zituen zirkua, Hanburgoko Parke-tik zetozenak. Haien hezlea Madame Boudix zen, sasoiko hedabideek ziotenez. Elefanterik beterranoena eme bat zen, Puntchy, 125 urtekoa eta lau tonako pisua zuena. Goizero hiria zeharkatzen zuten Ondarretako hondartzako uretan bainatzera joateko, besteak beste, Kontxa pasealekutik eta Askatasunaren hiri-bidetik igaroz. Ontziak eta ikusnahiak elefanteen bainuaren ikuskizunera hurbiltzen ziren. Ondarretako hondartzan elefanteak bainuan ageri diren argazki hau Pascual Marin nafarrak 1923ko uztailaren 30ean egindakoa da. Marinek denda bat zuen Donostiako Garibai kalean, eta zenbait hedabidetako berriemaile grafikoa ere bazen, besteak beste “El Pueblo Vasco” egunkarikoa.